

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 13ko erabakiaren laburpena: 2020an Vitoria-Gasteizko taxi-zerbitzurako errekuntza motorra duten ibilgailuen ordez ibilgailu elektriko matrikulatu berriak erosteko deialdiaren oinarriak onetsi dira

BDNS (Identif.): 509761

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Gasteizko Udalak emandako hirirako taxi-lizentziatoko baten jabe diren pertsona fisikoek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, lehendik lizentzia horri atxikitako ibilgailua ordeztuko duen ibilgailurako. Gasteizko taxi-elkarteak ere eskatu ahalko dute, ibilgailua Gasteizko taxi-lizentziek eta ez bestek ibilgailu bat ordezteko erabiltzeko bada.

Bigarrena. Helburua

Airearen kalitatea hobetzen laguntzea, eta kutsadura akustikoa, berotegi-efektuko gasen emisioak eta energia-kontsumoa murriztea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an onartu zituen. Tokiko Gobernu Batzordearen 2020ko ekainaren 5ko Erabakiak aldatua, aurrekontu-zuzkidurari dagokionez.

Laugarrena. Zenbatekoa

30.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Aurrekontua agortzea edo 2020ko irailaren 30a iristea; Dena dela, jasotako eskabideen eta horien tramitazio-egoeraren arabera, epea 2020ko abenduaren 31ra luzatzerik izango da, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena tarteko.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 5ean

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren administrazio burua
JAVIER LARRIETA CENDEGUI